# Oinarrizko konpetentzien EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2009

## IKASLEEN DATUAK SARTZEKO PROTOKOLOA

***HEZKUNTZA IKUSKARITZARAKO ARGIBIDEAK***

ISEI·IVEI
IRAKAS-SISTEMA EBALUATU ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

# IKASLEEN DATUAK E-DIAGNOSTIKOAK-EN ZERBITZARIAN SARTZEKO PROTOKOLOA

Ebaluazio Diagnostikoak duen garrantzia dela eta, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Sailburuordetzak beharrezko ekintza guztiak bateratu eta koordinatu nahi ditu Euskal Autonomia Erkidegoan, ebaluazio honen fase ugariak behar bezala garatzeko. Euskadiko ebaluazio diagnostikoaren prozesua arautzen duen Aginduko 5.2. artikuluak aipatzen du Hezkuntza Ikuskaritzari dagokiola "*ebaluazioan parte hartu behar duten ikasleen zerrendak egiteko aholkularitza eskaintzea*".

Dokumentu hau Hezkuntza Ikuskaritza Teknikoari zuzenduta dago eta bere helburua Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleen datuak jasotzeko protokoloa eta ezaugarriak argitzea da prozesua ahalik eta baldintzarik onenetan garatze aldera; izan ere, hori izango da 2009ko ebaluazio diagnostikoko probak aplikatzeko prozesuaren lehen zatia.

Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako ebaluazio diagnostikoa arautzen duen Aginduan zehaztutako irizpideak datuak jasotzeko prozesu osoak zehatz-mehatz bete beharko ditu. Batez ere kontuan hartu beharrekoa da 6. artikuluan agertzen dena, proben aplikazioarekin lotuta, eta 7. artikuluak xedatutakoa, izaera pertsonaleko datuen erabilerarekin eta tratamenduarekin lotuta kontuan hartu beharreko alderdiei dagokiona.

Datuak jasotzeko fase horrek duen garrantzia ebaluazio diagnostikoaren prozesu osoan beharrezkoa da ebaluazio horretan parte hartuko duten ikastetxeak kontuan izatea; izan ere, eskatutako datuak eta informazioak behar bezala sartzeak eta dokumentu honetan zehaztutako protokoloari zehatz-mehatz jarraitzeak bermatuko dute proben aplikazioa kalitateko irizpideekin egin ahalko dela.

Eskatzen diren datu guztiak jasotzeko, ebaluazio diagnostikoaren web orrian sortutako aplikazio informatikoa soilik erabiliko da (www.ediagnostikoak.net).

Dokumentu hau bi ataletan egituratuta dago:

1. Eskatutako datuen eta informazioen ezaugarriak eta informazio horren erabilera.
2. Ikasleen datuak sartzeko protokoloa.

## Datuak 2008ko azaroaren 17etik abenduaren 12era bitartean sartuko dira.

# 1. ESKATUTAKO DATUEN EZAUGARRIAK

Euskadiko ebaluazio diagnostikoaren prozesua arautzen duen Aginduko 7. artikuluak 175/2007 Dekretuko 36.4 artikulua aipatzen du. Horren arabera, ebaluazio honetan jasotako informazio ororen erabilerak kontuan hartu beharko du Izaera Pertsonaleko Datuak Babestearen inguruko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa eta kontuan hartu beharreko irizpide batzuk ere biltzen ditu:

- Izaera pertsonaleko datuak egokiak eta zuzenak direnean, eta ebaluazioaren helburuei dagokienez gehiegizkoak ez direnean soilik jasoko dira. Gainera, datu horiek ezeztatu egingo dira aurrez ikusitako helburu horietarako beharrezko izateari uztean.
- Datu pertsonal guztiak, eta baita probak egiteko prozesu bakoitzean parte hartzen duten ikastetxe eta taldeenak ere, horiek identifikatu ahal ez izateko moduan bildu eta gorde beharko dira; horretarako kode alfazenbakizkoak erabiliko dira beti, eta inoiz ez izen bereziak.

Irizpide horiek kontuan hartuta, jarraian azaltzen da ikasle bakoitzaren inguruan eskatutako datu kopurua eta haien egokitasuna. Era berean, informazio horietako bakoitza nola jasoko duten zehazten du. Datu horiek sartu beharreko fitxa jarraian agertzen dena da (datuak sartzeko hirugarren fasean ikastetxeek gero topatuko dutenari dagokiona da -ikus 11 orrialdea-):




1. **Identifikazio-kodea:** Ikasle bakoitzaren **eskolatze-liburuaren zenbakia**.

   Uneotan, ez dago ikasle bakoitza identifikatuko duen eta, gainera, jarraipeneko berme osoa duen kode bakar eta ofizialik. Horregatik, Aginduan adierazitakoa bete ahal izateko, beharrezkoa da ebaluazio diagnostikoaren lehenengo aplikazioan parte hartuko duten ikasleen identifikazio-kode gisa beren eskolatze-liburu zaharreko liburua erabiltzea (beren egungo Ikasketen Historialean agertzen dena da).

   **Kode osoa** erabili beharko da; hau da, seriea (hasieran hizkiekin idatzita agertzen dena) zein horren jarraian agertzen den zenbakia.

**KONTUZ!**

   Ikasle batek Eskolatze-liburua ez badauka eta beraz ez dauka koderik bere Ikasketen Historialean, Ikastetxeak "*Kode sortzaile automatikoa*" aurkituko du

ikasleen datuak sartzeko orrian (goi aldean, ondoko irudian ikusten den bezala).




**KODE BAT SORTZEKO PROZEDURA**:

a) Ikaslearen zenbakia sartu "***Ikas Zb/Nº Alum"*** laukian.
b) "***Sortu Kodea/Génerar código"*** laukian sakatu: automatikoki kodigorik ez zeukan ikaslearen lerroan kode bat sortuko da.
c) Datuen sarrerarekin jarraitu.

Azkenez, datuak sartzeko protokoloan agertzen den moduan (ikus 3.1. fasea), nahiz eta ebaluazio diagnostikoaren web orrian ikastetxeek eskolatze-liburuaren kodea bakarrik sartu beharko duten, ikastetxe bakoitzak, aurretik, zerrenda bat prestatu beharko du. Zerrenda horretan, ikasleen izen-abizenak eta bakoitzaren eskolatze-liburuaren zenbakia, sexua eta jaiotze-data agertu beharko dira. Zerrenda hori proba egiteko unean soilik erabili beharko da eta inola ere ez da zentrotik aterako; izan ere, aplikatzaileak izenak dituen zerrenda hori ikastetxeko arduradunari itzuli beharko dio ebaluazioa amaitzean.

## 2. Ikasleen sexua.

Datu hori eskatzeko bi arrazoi daude: batetik, proba egiteko garaian ikasleen identifikaziorako laguntza osagarri gisa erabiltzea; eta, bestetik, emaitzen azterketa estatistikoan aldagai gisa erabiltzea.

Ikastetxeek, kasu bakoitzean, ikasleen sexuari dagokion kodea ipini beharko dute soilik, aurreko fitxan ikus daitekeen moduan.

- 1. Neska/Chica / 2. Mutil/Chico

## 3. Jaiotze-data: urtea, hilabetea eta eguna.

Aurreko kasuan bezalaxe, datu hori baliagarria izango da ikasleak identifikatzeko eta emaitzen azterketa estatistikoan erabili ahal izateko.

Datu hori fitxan agertzen den ordenaren arabera sartu beharko da: urtea, hilabetea eta eguna (beti zenbaki bidez). Arreta berezia jarri beharko dugu aipatutako ordenan akatsik ez egiteko.

- Urtea: 4 zifra
- Hilabetea: 2 zifra
- Eguna: 2 zifra

## 4. Ikasleen beste ezaugarri batzuk:

Jarraian, zerrendan agertzen den ikasle bakoitzaren inguruan eskatzen diren beste informazio mota batzuk azaltzen dira. Proben aplikazioa zehaztasun handiagoz prestatu ahal izateko beharrezko informazioak dira. Kasu guztietan, taldea osatzen duten ikasle batzuengan soilik eragingo duten informazioak dira.

Ebaluazio diagnostikoaren prozesua arautzen duen Aginduko 2.2. artikuluan xedatuta dagoen moduan, *"Lehen Hezkuntzako 4. maila eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila dauden ikasle guztiek ebaluazio diagnostikoko probak egin beharko dituzte prozesu orokorrean ezartzen diren baldintza eta egunetan".* Dena den, ebaluazioan parte hartzeko beharrezkoak izan daitezkeen baliabideak eta egokitzapenak balioztatzeko kontuan izatea ezinbestekoa den zenbait egoera eta ikasleen ezaugarri ere agertzen dira Aginduan. Era berean, horiek ezinbestekoak izan daitezke ikasle mota jakin batzuen parte-hartzea egokia ez den egoera espezifiko jakin batzuk identifikatu ahal izateko.

Hauek dira egoera horietako batzuk:

### 4.1. CEI ofiziala duten hezkuntza bereziko ikasleak.

Agindu horretako 2.3 artikuluan agertzen denez, "*ezgaitasunen bat izateagatik banakako curriculum-egokitzapena izan duten ikasleek ebaluazio diagnostikoaren prozesu honetan parte hartuko dute ahal den neurrian, eta probak egiteko orduan behar diren egokitzapenak egingo dituzte*. *Bere egoera dela-eta, ikasle batek prozesu orokorrean ezarritako baldintzetan ezin badu parte hartu, ikastetxeak hartuko du haren partaidetzarako baldintzei buruzko erabakia, dagokionean ezarriko diren irizpide orokorrei jarraiki".*

Aurreko artikulua kontuan hartuta, beraz, hau ondoriozta dezakegu:

a) Zenbait ikasleren ezaugarri bereziak direla eta, baliteke horiek ebaluazioan parte hartu ezin izana. Hori da, esate baterako, curriculum-egokitzapen nabarmen orokorra (ikasgela arruntetan zein egonkorretan eskolatuta daudenak) edo arlo horretako curriculum-egokitzapena dutenen kasua, lehen aplikazio horretan ebaluatuko diren gaitasunen batekin oso lotuta badago.
b) Ahal den neurrian, arrazoizko ahalegina egin beharko da ikasle mota horiek probetan parte har dezaten. Dena den, baliteke lehen aplikazio horretan parte-hartzea oso mugatua izatea.
c) Azken buruan, ikastetxeari dagokio ezaugarri horiek dituzten ikasleek parte hartzea egokia den ala ez balioztatzea. Hau da, ikastetxeak entregatutako zerrendetan agertzen diren ikasle guztiek izan beharko dituzte proba egiteko koadernoak (nahiz eta gero ez hartu kontuan ikastetxeko eta taldeko batez besteko puntuazioa kalkulatzeko), baina ikastetxeak erabakiko du hezkuntza bereziko ikasleek parte hartzea

egokia den edo, aplikazioa egiteko garaian, beste ikasgela batean arreta ematea egokiagoa den.

Ikasle mota horiek identifikatzeko erabiliko dituzten kodeak hauek dira:

| CEIdun ikaslea | | |
|---|---|---|
| **1** | **2** | **3** |
| CEI orokorra duen ikaslea | CEI arlo batean edo gehiagoan duen ikaslea | Curriculumera sartzeko CEI bakarrik duen ikaslea |
| ☐ | ☐ | ☐ |

Ikasle mota horiek behar bezala identifikatu ahal izateko, irizpide hauek hartu beharko ditugu kontuan:

- **CEI orokorra duen ikaslea**: ikasle mota horrek ikaslearen curriculum arruntarekiko distantzia handia du eta probak egin ahal izateko zailtasun handiak topatuko ditu.
- **CEI arlo batean edo gehiagoan duen ikaslea**: arlo hauetakoren batean CEI duen ikasleari dagokion laukian marka egin beharko da: Euskara, Gaztelania, Matematika, Ingurunearen ezagutza (Lehen mailako Hezkuntzarako) eta Natur-zientziak eta Teknologia (DBHrako).
- Ikusmen-urritasuna, entzumen-urritasuna edo mugimendu-urritasuna dela eta **curriculumera sartzeko CEI <u>bakarrik</u> duen ikaslea**: kategoria horretan sartzeko CEI bakarrik duen ikaslea soilik kokatu beharko dugu. Curriculumera sartzeko CEI duen ikasleren batek, era berean, CEI orokorra edo arlo batekoa ere badu, aurreko kodeetan sartu beharko dugu.

### 4.2. Ikasle etorkinak.

Ebaluazio diagnostikoari dagokion Aginduko 7.5 artikuluan, hau jartzen du banakako emaitzekin lotuta: “*Probak egiteko unean euskal hezkuntza-sisteman eskolatuta urtebete baino gutxiago daramaten eta probak egitean erabiliko den hizkuntza hitz egiten ez duten ikasleak*” ez dira kontuan hartuko ikastetxe eta talde parte-hartzaile bakoitzeko batez besteko emaitzak kalkulatzeko unean.

Aurrekoa kontuan hartuta, aipatutako aurreko bi baldintzak betetzen dituzten ikasleek soilik ez lituzkete probak egin beharko; hau da, euskal hezkuntza-sisteman eskolatuta urtebete baino gutxiago egiteaz gain, probak egiteko erabiliko den hizkuntza ezagutzen ez dutenak. Hori dela eta, bi ezaugarri horietako bakarra soilik betetzen duten ikasle etorkinek gainerako ikaskideen baldintza beretan egin beharko dituzte probak. Irizpide horiek nazioarteko ebaluazio-proba guztietan egun erabiltzen dituztenen antzekoak dira.

Hizkuntzarekin loturarik ez duten gaitasunen probak egiteko ikastetxeak aukeratutako hizkuntza ondoren zehaztuko denez, orain <u>gure sisteman urtebete baino gutxiago eskolatuta daramaten ikasleak soilik zehaztu beharko dituzte</u>.

Hezkuntza arloko behar bereziak dituzten ikasleen kasuan bezalaxe, ikasle etorkinek ere probak egin ahalko dituzte ikastetxeak egokitzat joz gero. Hala bada, haien datuak ez dituzte erabiliko ikastetxeko eta taldeko batez bestekoa kalkulatzeko.

**4.3. Euskaratik salbuetsita dauden ikasleak.**

Ofizialki Euskara arloa ikasteko salbuetsita dauden ikasleek hizkuntza-komunikazioko gaitasunari dagokion proba ez dute derrigor euskaraz egin beharko, ikastetxeak aurkakoa erabakitzen duenean izan ezik. Edonola ere, beharrezkoa izango da ezaugarri hori ikasleen zerrendan zehaztea.

Ikastetxeren batek euskaratik salbuetsita dauden ikasleek proba egin behar dutela erabakiz gero, haien emaitzak kanpoan geratuko dira ikastetxearen eta taldearen batez bestekoa kalkulatzeko unean.

**4.4. Ohiko ikasle absentistak**. Ohiko ikasle absentistatzat hartuko da ikaslea eskolen % 20era baino gehiagora agertzen ez denean justifikatu gabe.

## BAKARRIK DBHko IKASLEENTZAT

**4.5. Esku-hartze Espezifikoko Proiektuetan eskolatutako ikasleak (EHEP/PIE).**

Erreferentzia taldea DBHko 2. mailako taldea duten Esku-hartze Espezifikoko Proiektuetan (EEP) eskolatutako ikasleek gainerako ikaskideekin egin beharko dituzte probak. Dena den, informazio hau jasotzea komeni da ikasle horien emaitzak modu espezifikoan aztertu ahal izateko.

Beste kasu batzuetan bezalaxe, ikastetxeak egoera horretako ikasleari dagokion laukia markatu bakarrik egin beharko du.

**4.6. Eskolatze Osagarriko Programetan dauden ikasleak (EOP/PEC).**

Programa horiek Programa hasi zen urteko abenduaren 31n gehienez 15 urte dituzten DBHn eskolatutako ikasleei zuzenduta daude. Ikasle horiek beren baldintza pertsonal larriak edo historial akademikoa direla eta, laguntzako behar espezifikoak dituzte, baina ez CEI. Kasu horretan, erreferentzia talde gisa DBHko 2. mailako taldea duten ikasleak bakarrik zehaztu beharko dira, nahiz eta programa beste ikastetxe batean garatu.

**Ikastetxe bakoitzak ikasleen aurreko datu guztiak sartu beharko ditu dokumentu honetako bigarren zatian azaltzen den protokoloari jarraiki.**

## 2. IKASLEEN DATUAK SARTZEKO PROTOKOLOA

Ebaluazio diagnostikoaren Aginduko 6.2 artikuluan xedatuta dagoenez, "*ikastetxe bakoitzeko zuzendariak proba egingo zaien ikasle guztien zerrenda osatuko du; zerrenda horretan Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasle guztiak jaso beharko dira*".

Aurreko agindua behar bezala bete ahal izateko, ikasleen datuak sartzeko garaian ikastetxeko zuzendariak edo betebehar hori eskuordetu dion pertsonak eman beharreko urratsak jarraian agertzen diren hauek izango dira.

Kontuan izan beharreko kontua da hau: DATUAK HEZKUNTZA ETAPA BAKOITZAREN ARABERA SARTU BEHARKO DIRA. Beste nolabait esanda, Lehen Hezkuntzako 4. mailako zein DBHko 2. mailako taldeak dituzten ikastetxeek taldeen eta ikasleen datuak bi une ezberdinetan eta bereizita sartu beharko dituzte.

Lehen aipatu dugun moduan, ikastetxeek datuak 2008ko **azaroaren 17a eta abenduaren 12a** artean sartu beharko dituzte. Ikastetxeak emandako datuekin lotuta arazoren bat dagoenean edo zalantzaren bat sortzen denean, ISEI-IVEI zuzenean jarriko da harremanetan erreferentziazko ikuskatzailearekin edo ikastetxearekin.

### ☑ 0. FASEA. SARTU EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAREN WEB ORRIAN.

http://www.ediagnostikoak.net/




Helbide horretan, hainbat motatako informazioaz gain, ***"DATUAK SARTZEA"*** izeneko atal espezifikoa topatuko dute. Bertan sartu beharko dute probak egin behar dituzten ikasleen datuak sartzen hasi ahal izateko.

Atal horretan sartu ahal izateko, bi kode beharrezkoak izango dira:

1. Ediagnostikoak.net web pribatuan sartzeko kodea (Ikastetxe guztientzat):

| | |
|---|---|
| *Erabiltzaile*: | **rd0003** |
| *Pasahitza:* | **ed1109** |

2. Ikastetxe bakoitzeko sarrerako kode espezifikoa: azaroaren 17ean ISEI-IVEIk posta elektroniko bidez ikastetxe bakoitzari sarrerako kodea bidaliko du. Kode hori ikastetxe bakoitzeko erreferentziazko ikuskatzaileak ere jasoko du. Bi

hezkuntza-etapa dituzten ikastetxeen kasuan, sartzeko bi kode jasoko dituzte (kode bat etapa bakoitzerako)




## ☑ 1. FASEA. IKASTETXEAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK OSATZEA ETA ZUZENTZEA.

Lehen aipatutako atalean sartu ostean, ikastetxeari buruzko oinarrizko datu batzuk osatzea eta baieztatzea/zuzentzea xede duen pantaila ikusiko dute. Horrez gain, Lehen Hezkuntzako 4. mailako edo DBHko 2. mailako taldeari edo taldeei (ikastetxean baldin badaude) buruzko ezaugarri batzuk identifikatu ahalko dituzte (lehen aipatu dugun moduan, beti bereizita).

Hasieran, prozesuan sor daitezkeen arazoak konpontzeko edo edozein kontsulta egiteko harremanetan jar zaitezkeen ISEI-IVEIko pertsonen datuak topatuko dituzte.

| ***Edozein kontsultarako, jar ezazu harremanetan ondoko helbide eta telefonoetan:*** Para cualquier consulta, pongase en contacto con las direcciones y teléfonos siguientes: | | | |
|---|---|---|---|
| *Datuen sartzea* / Introducción de datos | Yolanda Méndez | 94 476 61 71 | ymendez@isei-ivei.net |
| | Carmen Núñez | 94 476 61 71 | carmennu@isei-ivei.net |
| *Informatikako aplikazio honi buruzko arazoak* Cuestiones técnicas sobre esta aplicación informática | Carmen de la Sen | 94 476 61 75 | cdelasen@isei-ivei.net |

>>> HASI datuak sartzen / COMENZAR la introducción de datos <<<

Lehenengo fase honetan, batez ere, lan bat egiteko eskatuko zaio:

### 1.1. IKASTETXEKO HARREMANETARAKO DATUAK BERRIKUSTEA ETA OSATZEA

Ikastetxeko zuzendaritzak pantailan agertzen diren harremanetarako datuak berrikusi eta, akatsen bat baldin badago, zuzendu egin beharko ditu. Gainera, ebaluazio hori egiten ahal izateko ikastetxeko harremanetarako pertsonekin lotutako beste datu batzuk sartu beharko ditu.



**1. *Ikastetxearekin harremanetarako datuak /*** Datos de contacto del centro
(*Zuzendaritza Taldeak betetzekoak* / A cumplimentar por la Dirección)

*Datuen sartzea* / Introducción de datos: **Irekita** **Abierta**

*ikastetxearen datuak* / *Datos del centro*
*Akatsaren bat izango balitz, adierazi aldaketak* / En caso de que haya algún error, indicar los cambios

*Izena / Nombre*: CPEIP HIRUKIDE JESUITIN/ Tfnoa: 943651027 *Eposta* Email: hirukidejesuitinak@hirukide.org

*Aldaketak / Cambios*: cambio Tfnoa: tfno *Eposta* Email:

*Harremanetarako ikastetxeko pertsonak* / Personas de contacto en el Centro.

*Zuzendaria* / Director(a): Tfno.: *Eposta* Email:

*Ebaluazio Arduraduna* Responsable evaluación: Tfno.: *Eposta* Email:

*IKT Arduraduna* Responsable TIC : Tfno.: *Eposta* Email:

>>> GORDE aldaketak / GUARDAR cambios <<<

>>> ITXI datuen sartzea / CERRAR la introducción de datos <<<

Datu horiek sartu ostean, **GORDE** egin beharko ditu pantailan agertzen den botoian klik eginez. Datu horiek aldatzeko edo osatzeko aukera beti egongo da aktibo **ITXI DATUEN SARTZEA** izeneko botoia sakatu arte.

## ☑ 2. FASEA. IKASLEEN TALDEEI BURUZKO DATUAK ZEHAZTEA.

Une horretan, ikastetxeko zuzendaritzak Lehen Hezkuntzako 4. mailan edo DBHko 2. mailan eskolatutako ikasleen taldeari edo taldeei buruzko datu hauek **EGIAZTATU EDO ZUZENDU** beharko ditu.

- Hizkuntza-eredua.
- Taldearen izena (ikastetxeko talde bakoitza identifikatzeko erabili ohi den izena edo nomenklatura).
- Talde bakoitzean modu ofizialean matrikulatutako ikasle kopurua.



**2. Ikastaldeen datuak /** Datos de los grupos de alumnos(as)
(*Zuzendaritza Taldeak betetzekoak* / A cumplimentar por la Dirección)

*Datuak sartzea* / Introducción de datos: **Irekita** **Abierta**

| Modelo A Eredua | | | | Modelo B Eredua | | | | Modelo D Eredua | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *Admin. datuak* Datos Admin. | | *Ikastetxeko datuak* Datos del centro | | *Admin. datuak* Datos Admin. | | *Ikastetxeko datuak* Datos del centro | | *Admin. datuak* Datos Admin. | | *Ikastetxeko datuak* Datos del centro | |
| *Izena* Nombre | *Kopu.* Num. | *Izena* Nombre | *Kopu.* Num. | *Izena* Nombre | *Kopu.* Num. | *Izena* Nombre | *Kopu.* Num. | *Izena* Nombre | *Kopu.* Num. | *Izena* Nombre | *Kopu.* Num. |
| **A1** | **25** | A1 | 25 | **B1** | **25** | B1 | 25 | **D1** | **15** | D1 | 15 |
| **A2** | **20** | A2 | 20 | **B2** | **27** | B2 | 27 | **D2** | **16** | D2 | 16 |
| **A3** | **15** | A3 | 15 | | **0** | | 0 | **D3** | **28** | D3 | 28 |
| | **0** | | 0 | | **0** | | 0 | | **0** | | 0 |
| | **0** | | 0 | | **0** | | 0 | | **0** | | 0 |
| | **0** | | 0 | | **0** | | 0 | | **0** | | 0 |

>>> GORDE aldaketak / GUARDAR cambios <<<

Kontuz! >>> ITXI datuen sartzea / CERRAR la introducción de datos <<< ¡Atención!

Datu horiek sartu eta haietan akatsik ez dagoela ziurtatu ostean, dagokion botoian klik eginez **GORDE** egin beharko dira. Datu horiek aldatzeko edo osatzeko aukera beti egongo da aktibo **ITXI DATUEN SARTZEA** izeneko botoia sakatu arte. Datuak sartzeko aukera itxi ondoren, modu automatikoan sortuko da ikastetxeko Lehen Hezkuntzako 4. mailako edo DBHko 2. mailako hizkuntza-eredu bakoitzeko taldea edo taldeak biltzen dituen taula, eta hirugarren fasea hasiko da.

## ☑ 3. FASEA. EBALUAZIO HONETAN PARTE HARTU BEHARKO DUEN TALDE BAKOITZAREN ZERRENDA PRESTATZEA.

Aurreko datu guztiak eman ostean, hurrengo fasea hasiko da. Bertan, dokumentu honen lehen zatian agertzen diren ikasle bakoitzaren datuak osatu beharko dira.

Hauek dira jarraitu beharreko urratsak:

### 3.1. TALDE BAKOITZEKO ZERRENDA BAT PRESTATZEA.

Lehen lana talde bakoitzeko ikasleen zerrenda egitea izango da. Horretarako, ikastetxe bakoitzak erabiltzen duen zerrenda ofiziala erabili ahalko da. Bertan, ikasle bakoitzaren izen-abizenak agertuko dira eta haiei bakoitzaren Eskolatze Liburuko identifikazio-kodea (Ikasketen Historialean agertzen dena), sexua eta jaiotze-data gehitu beharko zaizkie.

KONTUZ!

Oso garrantzitsua da zerrenda hori, proba egiteko egunetan erabiliko dena izango baita. Zerrenda hori aplikatzaileari entregatu beharko zaio ikaslea identifikatzeko garaian bere lana zailtasunik gabe egin dezan. Era berean, aplikazioa amaitzean, zerrenda berriro jaso beharko da, ikasleen izenik ez dadin ikastetxetik atera.


3. *Ebaluazio proba egingo duten ikasleen zerrenda(k)*
Lista(s) del alumnado que realizará la prueba de evaluación.

*Datuak sartzea* / Introducción de datos: Irekita Abierta

*Jarraitu hurrengo pausoak* / Seguir los siguientes pasos:

1 ***Talde bakoitzeko zerrenda bat prestatu (Word, Excel, Access...), ondorengo datuekin:***
Preparar un listado (Word, Excel, Access...)por cada uno de los grupos, en el que conste:

- ***Ikasle bakoitzaren izen-abizenak*** / Nombre y apellidos de cada alumno(a).
- ***Eskolatze-liburuko identifikazio kodea*** / Código de identificación del Libro de Escolaridad.
  - *Ikasle batek eskolatze-liburu bat baino gehiago badu, idatzi* ***LIBURU BERRIaren*** *identifikazio kodea.*
    Si el alumno/a tuviese más de un libro de escolaridad, anotar el código de identificación del libro **MÁS NUEVO**
  - *Eskolatze-liburua ez daukan ikasleentzat, zerrenda egiterakoan "kode sortzaile automatiko" aukera erabiliko da.*
    Para el alumnado que carezca de libro de escolaridad, en el momento de confeccionar el listado del alumnado, deberá utilizarse la opción de "generador automático de código"
- **Sexua** / Sexo: (1=neska/chica, 2=mutila/chico)
- **Jaiotze-data** / Fecha de nacimiento



***Ezinbestekoa da aplikazioaren egunetan, ebaluazioaren ikastetxeko arduradunak zerrenda hau eskura izatea***
Es imprescindible que el responsable de la evaluación disponga de este listado los días de la aplicación.

## 3.2. IKASLEEN DATUAK WEB APLIKAZIOAN SARTZEA.

Une horretan, 2. fasean modu automatikoan sortu den taulan agertzen den taldeetako bakoitza aukeratu beharko da.



**2** ***Aurreko datuak prestatu eta gero, aukeratu beheko taulan agertzen diren taldeak eta bete hurrengo datuak:***
Una vez preparados los datos anteriores, seleccionar en la tabla de abajo los grupos que aparecen y completar los siguientes datos:

- ***Eskolatze-liburuaren identifikazio kodea*** / Código de identificación del Libro de Escolaridad.
- ***Sexua*** / Sexo
- ***Jaiotze urtea, hilabetea eta eguna*** / Año, mes y día de nacimiento
- **Beste ezaugarri batzuk** / Otras características:
  - ***CEI ofiziala*** / Alumnado con ACI oficial:
    - ***CEI orokorra*** / ACI global
    - ***Arloko CEI*** / ACI de área-s
    - ***Curriculumera sartzeko CEI*** / ACI de acceso al currículo
  - ***Etorkina*** / Inmigrante
  - ***Euskara gabekoa*** / Exento de Euskara
  - ***Ohiko ikasle absentista*** / Alumnado absentista habitual
  - ***DBHko ikasleentzat*** / Para el alumnado de ESO:
    - ***Esku-hartze espezifikoko proiektuetan Ikasleak (EEP)*** Alumnado en Proyectos de intervención específica(PIE)
    - ***Eskolatze osagarriko programetan ikasleak (EOP)*** Alumnado en Programas complementarios (PEC)

| Eredua / Modelo | Taldea / Grupo |
|---|---|
| A | A1 |
| A | A2 |
| B | B1 |
| B | B2 |

***Ikasleen zerrenda guztiekin bukatu eta gero, sakatu hurrengo botoia***
Al terminar con el listado de todos los alumnos, pulsar el siguiente botón

>>> ITXI datuak sartzea / CERRAR la introducción de datos <<<

Talde bat aukeratzean, programak beste pantaila batera bideratuko du. Bertan agertzen da jarraian ikus dezaketen fitxa. Pantaila horretan, datu hauek sartu beharko dira (dokumentu honetako lehen zatian agertzen direnak):



| Ikastetxea / Centro | Etapa | Eredua / Modelo | Taldea / Grupo |
|---|---|---|---|
| CPEIP HIRUKIDE JESUITINAK HLHIP | LH/PRI | A | A1 |

***Eskolatze-libururik gabeko ikasleentzat*** / Para el alumnado sin libro de escolaridad
Ikas.zb. / Nº alu. [ ] Sortu kodea / Generar código

*Beste aplikazio batzuetatik* ***datuak inportatu***
**Importar datos** desde otras aplicaciones
Joan / Ir

>>> Gorde datuak / Guardar datos <<<

| Ikas. zb. Nº Alu. | *Eskola liburua* Libro escolaridad | *Sexua* Sexo | Jaioteguna Fecha nac. *Urtea* Año | *Hila* Mes | *Eguna* Día | CEIdun Ikasleak / Alumnado ACI Garbitu Limpiar | *Globala* Orokorra | *Arlo bat edo gehiagotan* En una o ... | *Curriculumera sartzeko bakarrik* Sólo acceso ... | *Etorkina* Inmigrante | *Euskara gabekoa* Exento Euskera | Absen. Absen. | Bakarrik DBHn Sólo en ESO Garbitu Limpiar | *EHEP* PIE | *EOP* PEC |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | PAV090004 | 1 | 1957 | 12 | 11 | | ○ | ○ | ○ | ☑ | ☑ | ☑ | | ○ | ○ |
| 2 | PAV090005 | 1 | 1955 | 1 | 25 | | ○ | ○ | ○ | ☐ | ☐ | ☐ | | ○ | ○ |
| 3 | | 2 | 1957 | 8 | 5 | | ○ | ○ | ○ | ☐ | ☐ | ☐ | | ○ | ○ |

- ***Eskolatze Liburuko identifikazio-kodea***: seriea + zenbakia (3.1. fasean prestatutako zerrenda erabili eta inporta daiteke, ikasleen izenak kenduz).
- ***Ikaslearen sexua***: neska/mutila.
- ***Jaiotze-data***: urtea, hilabetea eta eguna.
- ***Beste ezaugarri batzuk***:
  - CEI ofiziala duen ikaslea: egin marka dagokion laukian.
    - 1. kodea. CEI orokorra duen ikaslea.

- 2. kodea. Arloko CEI duen ikaslea.
- 3. kodea. Curriculumera sartzeko CEI bakarrik duen ikaslea.

- Euskal hezkuntza-sisteman eskolatuta urtebete baino gutxiago daraman ikasle etorkina: egin marka dagokion laukian.
- Euskaratik salbuetsita dagoen ikaslea: egin marka dagokion laukian.
- Ohiko ikasle absentistak: egin marka dagokion laukian.

***DBHko IKASLEENTZAT:***

- EEP/PIE ikasleak: egin marka dagokion laukian.
- Eskolatze Osagarriko Programetan (EOP/PEC) dauden ikasleak: egin marka dagokion laukian.

4. orrian azaldu den bezala, Eskolatze-liburурik ez daukaten ikasleentzat ondorengon fitxan agertzen den “***Sortu kodea***” aplikazioa erabili behar da, ondoko prozedurarekin:

**KODE BERRI BAT SORTZEKO PROZEDURA**:

d) Ikaslearen zenbakia sartu “***Ikas Zb/Nº Alu”*** laukian.
e) “***Sortu Kodea/Génerar código”*** laukian sakatu”: automatikoki kodigorik ez zeukan ikaslearen lerroan kode bat sortuko da.
f) Datuen sarrerarekin jarraitu.




Lehen azaldu den bezala, CEIdun ikasle bat bakarrik egon daiteke definitutako hiru egoeretako batean (edo CEI orokorra, edo arlo batean edo curriculumera sartzeko); gauza bera gertatzen da DBHko ikasleekin, bakarrik esandako bi berariazko Programetako batean egon daitezke (Esku-hartze Espezifikoko Proiektuetan -EHEP/PIE- edo Eskolatze Osagarriko Programetan -EOP/PEC-). Ikasle hauei buruzko datuak sartzeko momentuan akats bat egiten bada, ***Garbitu/Limpiar*** zutabeetan dagoen baliabidea erabili behar da.




Datuak sartzeko Lan hori errazte aldera, ikastetxeak datu horiek edo haien zati bat Word, Excel edo Access programan izanez gero, oso erraz inporta ditzake pantailan agertzen diren argibideei jarraituz.

Datuak sartzeko prozesua amaitzean, garrantzitsua da **GORDE DATUAK** botoia sakatzea. Prozedura bera egin beharko da ebaluazio-probak egin behar dituzten ikastetxeko talde guztien datuak osatzeko lana amaitu arte.



# IKUSKARITZARAKO KONTROL-PANELA

Ikuskari bakoitzak Kontrol-panelera sarrera murriztua izango du. Panel horretan bere ikastetxe guztiak agertuko dira. Edozein ikastetxetan sartuz oso erreza izango da jakitea ikasleen datuak sartzeko prozesua nola doan

Kontrol-panel honetara sartzeko prozedura honakoa izango da:

**1**. Sartu hurrengo web orrian: www.ediagnostikoak.net/ebadiag09/9_kontrolak.php

**2**. Sartu Ikuskari bakoitzari dagokion Kontrol-panelera sartzeko kodea.




**3**. Bistaratu bere ikastetxe guztiekiko Kontrol-panela.




| etap | lurr | herria | sarea | ikastetxea | tfnoa | kod ikas | itxi ta | ikte datu | alda keta | tald Aere | tald Bere | tald Dere | - | - | - | - | - |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| LH/PRI | ARABA | LAUDIO/LLODIO | PUB | CEP LAMUZA LHI | 946720226 | 382248 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | - | - | - | - | - |
| LH/PRI | ARABA | VITORIA-GASTEIZ | CON | CPEIPS NAZARETH HLBHIP | 945232967 | 329029 | 1 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | - | - | - | - | - |
| LH/PRI | ARABA | VITORIA-GASTEIZ | PUB | CEP ADURZA IKASTOLA LHI | 945136822 | 296246 | 1 | 0 | 1 | 0 | 0 | 2 | - | - | - | - | - |
| LH/PRI | ARABA | VITORIA-GASTEIZ | PUB | CEP DIVINO MAESTRO-MARIA DE MAEZTU LHI | 945227308 | 242107 | 1 | 1 | 0 | 1 | 0 | 0 | - | - | - | - | - |
| LH/PRI | BIZKAIA | BARAKALDO | PUB | CEP NTRA. SRA. DEL PILAR LHI | 944371725 | 280007 | 1 | 1 | 0 | 0 | 1 | 0 | - | - | - | - | - |
| LH/PRI | BIZKAIA | BASAURI | CON | CPEIPS COOPERATIVA BASAURI HLBHIP | 944492038 | 877864 | 1 | 1 | 0 | 0 | 1 | 0 | - | - | - | - | - |
| LH/PRI | BIZKAIA | BASAURI | PUB | CEP JOSE ETXEGARAI LHI | 944405525 | 192894 | 1 | 1 | 0 | 0 | 0 | 1 | - | - | - | - | - |
| LH/PRI | BIZKAIA | BILBAO | CON | CPEIPS BEGOÑAZPI IKASTOLA HLBHIP | 944005300 | 153086 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 2 | - | - | - | - | - |
| LH/PRI | BIZKAIA | BILBAO | CON | CPEIPS URRETXINDORRA IKASTOLA HLBHIP | 944701314 | 613041 | 1 | 1 | 0 | 0 | 0 | 1 | - | - | - | - | - |
| LH/PRI | BIZKAIA | BILBAO | PUB | CEP MIRIBILLA LHI | 944166820 | 652201 | 1 | 1 | 0 | 1 | 0 | 0 | - | - | - | - | - |
| LH/PRI | BIZKAIA | ERANDIO | PUB | CEP IGNACIO ALDEKOA LHI | 944175099 | 160133 | 1 | 1 | 1 | 0 | 1 | 0 | - | - | - | - | - |
| LH/PRI | BIZKAIA | GERNIKA-LUMO | PUB | CEP ALLENDE SALAZAR LHI | 946251455 | 560418 | 1 | 1 | 0 | 0 | 0 | 2 | - | - | - | - | - |
| LH/PRI | BIZKAIA | GETXO | CON | CPEIPS NTRA. SRA. DE EUROPA HLBHIP | 944910392 | 636639 | 1 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | - | - | - | - | - |
| LH/PRI | BIZKAIA | GETXO | PUB | CEP ROMO LHI | 944638304 | 490421 | 1 | 1 | 0 | 1 | 1 | 1 | - | - | - | - | - |
| LH/PRI | BIZKAIA | LOIU | CON | CPEIPS PADRE ANDRES URDANETA | 944533308 | 952135 | 1 | 0 | 0 | 1 | 1 | 0 | - | - | - | - | - |

**4**. Sartu edozein ikastetxetan egoera ikusteko.

# DATUAK SARTZEKO PROZESUAREN ESKEMA
## Azaroaren 17tik abenduaren 12ra

## 0 EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAREN WEB ORRIAN SARTU

http://www.ediagnostikoak.net/




SARTU:
1. WEB KODEA
2. IKASTETXEKO KODEA

## 1 IKASTETXEKO IDENTIFIKAZIO DATUAK

Berrikusi eta osatu ikastetxeko harremanetarako datuak

GORDE

ITXI DATUEN SARRERA

## 2 IKASTETXEKO TALDEEI BURUZKO DATUAK

Zehaztu ikastetxeko ikasleen taldeei buruzko datuak:
*Hizkuntza eredua, taldeen izena eta ikasle kopurua.*

GORDE

ITXI DATUEN SARRERA

## 3 TALDE BAKOITZAREN ZERRENDA PRESTATU

**3.1.** Prestatu talde bakoitzerako zerrenda bat

- Izen-abizenak
- Eskolatze-liburuko kodea
- Sexua eta jaiotze-data

*Zerrenda hau ikastetxean geratuko da aplikazioa egiteko momentu arte*

**3.2.** Sartu ikasleen datuak web aplikazioan.

- ESKOLATZE LIBURUKO KODEA.
- SEXUA: neska/mutila.
- JAIOTZE DATA: urtea, hilabetea eta eguna.
- BESTE EZAUGARRI BATZUK:
  - CEI ofizialeko IKASLEA:
    - 1. CEI orokorra duen ikaslea.
    - 2. Arloko CEI duen ikaslea.
    - 3. Sartzeko CEI bakarrik duen ikaslea.
  - Ikasle etorkina.
  - Euskaratik salbuetsitako ikaslea.
  - Ohiko ikasle absentistak.
  - EEP/PIE ikasleak.
  - Eskolatze Osagarriko Programak.

GORDE